



Proiektu zbk.: 2016/13

Enpresa: **PETRÓLEOS DEL NORTE, S.A.**

Jazarpenaren kontrako prebentzioko protokoloa eta laguntza psikosoziala

Helburua eta aurkezpena: protokolo horren helburua hau da: jazarpen moral, sexualik edo sexuak eragindako jazarpenik ez gertatzea; izan ere, lan-ingurunerako kaltegarriak dira jazarpen horiek, eta osasunerako nahiz enpresako Berdintasun Planaren (2015-04-15ean sinatua) barruko autoestimurako efektu okerrak eragiten dituzte. Enpresan egindako arrisku psikosozialen (besteak beste jazarpena, diskriminazioa) ebaluazioaren ondoren, laguntza psikosoziala eskura izateko beharra zehaztu zen; orduko hartan, ordea, ikuspuntu desberdin eta berritzaile batetik.



Egindako hobekuntzak: enpresan lehenengo aldiz, hasierako laguntza psikosoziala zehaztu zen, jazarpeneko protokoloa aplikatzeko esparruaren baitako edozein prozedura zabaldu baino lehen banakako aholkularitza eta laguntza ahalbidetzen duena. Finkatutako prozeduren funtzionamendu egokia hobetzea azpimarratu da, pertsonen konfidentzialtasuna eta eskubideak bermatzean oinarrituta, eta horrela gertaerak jasan dituzten pertsonen salaketa edo erreklamazioak bideratu dira. Hori guztia aditu bulego baten aholkularitza lagun hartuta. Era apartekoan nabarmendu da protokoloan esku hartu duten pertsonen prestakuntza berariazkoa. Etorkizun hurbilean berariazko prestakuntza buruzagientzat planifikatuko da, arazo horiei aurre egingiten jakin dezaten. Langile guztiak berariaz prestatzeko modua ere aztertzen ari dira. Azkenik, helburu adierazleekin urteko kudeaketa plan bat abiarazteko asmoa dago, hartutako neurrien eraginkortasuna egiaztatzeko aukera emango duena. Emakundek sustatutako laneko jazarpen sexualaren eta sexistaren aurkako protokoloarekin bat egin.

Bereizgarriak: enpresan langileen lan-baldintzak hobetzeko konpromiso agerikoa dago, kalte fisikoa eragin dezaketen arriskuen aurrean prebentzioa eta babesa eskaintzea zainduz ez ezik, gehienbat, osasun psikikoari kalteak eragin diezazkioketen arriskuen aurrean. Hori dela eta, egiteko forma berriak bilatzen dira, eta ikuspuntu berri horren emaitza gisa, laneko arrisku psikosozialen arloan espezializatutako kanpoko zerbitzu profesional bat dugu orain eskura.

Prozesuaren deskribapena: enpresak eskura jarri du laguntza psikosozialeko lerro iraunkor bat, sexu jazarpenean eta era horretako beste arriskueta aditua den psikologo talde batek artatuta. Artatze psikologikoa da, anonimoa eta konfidentziala, behar duen edozein arlo horrekin lotura duten kontu guztietan orientatzeko asmoz. Eskura dauden kanalak erreferentziako pertsonaren posta elektronikoa edo harremanetarako telefonoa dira, eta, beharrezkoa izanez gero, elkarriketa pertsonalak ere hitzartzeko aukera dago.

Lortutako emaitzak: une honetan, emaitzen jarraipena egiteko fasean daude, eta, aldi berean, protokoloa eta laguntza psikosoziala hedatu eta sustatzen.